

BALEIKE



MERKATARIAK
**GABONEN
 ESPEROAN**

GABONETAKO #ERROTAHERRIA KANPAINA

#errotaherria gara

bonuak 15-5 € €

Laster herriko merkataritza eta ostalaritza guneeetan

Zumalako Udala   **ZUMAIA
 BIZITZEKO
 DA**

 **GERTU**
ZUMAIKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA





Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



BALEIKE 304

2020-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Amaia Urbieta Arruti
Garbiñe Arrieta Mendizabal
- 6 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio
Aprea
Altuna
- 8 **Hainbat aburu** Asier Etxaniz
Eizagirre
Suari begira
- 9 **Errematea** Sara Iburguren
Mundu paraleloak
- 11 **Elkarrizketa** Juan Luis Romatet
Lander Irizar: Pandemiagatik baino gehiago, beste faktore batzuegatik ari dira aldatzen irakurketa ohiturak
- 17 **Erreportajea** Maria Maya
Manterola
Tokiko saltokiak, supertze bidean
- 22 **Erretratua** Xabier Azkue
Aitor Eizmendi, sagardogile handi bat
- 26 **Bazkide kluba**
- 28 **Plazan bazan**
- 31 **Heziketa** Mireia Centeno
Pixka bat haserre, haserre, oso haserre
- 33 **Zientzia eta ingurumena**
Asier Hilario Orus
Pirinioak geoparkean: arroak plastilina balira bezala
- 38 **Orduan bai** Imanol Azkue Ibarbia
Zumaia erabat euskalduna, orain dela berrehun urte
- 42 **Kultura** Juan Luis Romatet
Beste bat... edo best
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Irudimenaren festa
- 45 **Nire txanda** Maria Zubimendi
Kultur eduki digitalak pandemia garaian, the show must go on. Eta orain zer?
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Distopia (ipaina)

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue Ibarbia
Amaia Urbieta Arruti
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Garbiñe Arrieta Mendizabal

TESTUA: AMAIA URBIETA ARRUTI

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

34 urte daramatza Garbiñe Arrieta Mendizabalek (Zumaia, 1965) Martinez Kleisser kaleko leihatilan loteria saltzen. Bidelagun izan du azken 25 urteetan Jaione Azpiazu, eta hamaika bizipen partekatu dituzte elkarrekin.

Deskribatuko al zenuke loteria eroslearen profila?

Bi loteria mota daude. Alde batetik daude *Primitiva, Bonoloto, Euromillon...* Horiek gazteek eta edadetuek, biek jokatzen dituzte. Apustu merkeagoak dira, baina sariak oso altuak izaten dira. Hori bai, tokatzeko aukera askoz txikiagoa da. Bestalde, dago loteria tradizionala, nazionala. Hori astero izaten da, ostegunetan eta larunbatetan. Ostegunetako loteria merkeagoa denez, gazteagoek ere jokatzen dute, baina larunbatekoa erosten dutenak edadetuagoak izaten dira. Gabonetako loterietan, berriz, mundu guztiak jokatzen du.

Adina aipatu duzu. Ba al dakizu, ordea, nolako ahalmen ekonomikoko jendeak jokatzen duen?

Alde horretatik ere denetik dagoela esango nuke. Dirua daukanak jokatzen du, baina dirurik ez daukanak ere bai. Jokatzen du behar duenak ere, ahal duena. Jolas bat bezalakoa da. Ez da pobreek gehiago jokatzen dutela aberatsek baino. Jokatzeko horrek ematen dizu aukera pentsatzeko zer egingo zenukeen tokatuko balitzaizu.

Nolako bilakaera eduki dute azken hamarkadetan salmentek?

Krisiaren aurretik egon ziren urte batzuk oso onak. Ekonomia aldetik oso garai onak izan ziren, eta guk ere igarri genuen. Esaten da krisia dagoenean gehiago jokatzen dela, baina nire esperientzian ez da hala izan. Hilaren bukaerarako ez bazaizu iristen, lehenengo kentzen dituzun gastuak dira ez direnak beharrezkoak.

Apustu etxeen aurka sortutako mugimenduak eduki al du loteriaren pertzepzioan eraginik?

Jokatzeko bi era oso desberdin dira. Apustu etxeetan momentuko sariak ematen dituzte gehiago. Errazagoa da ludopatian erortzen apustu horiek jokatuta. Loterian zuk erosten duzu gaur, baina itxaron behar duzu saria ateratzeko egun

bat, pare bat, edo hilabete bat. Modu hori ez da horren arriskutsua ludopatian erortzeko. Hala ere, hemezortzi urte baino gutxiago dituztenei ezin diegu ezer saldu eta nahi duenak, ikusten badu arazoa daukala jokoarekin, guk aholka diezaiokegu nora deitu. Ematen dizkigute ikastaro batzuk horretan sentibilizatzeko. Kontuz ibiltzen gara gai horrekin.

Baliabideak badituzue, beraz, ludopatia kasuak detektatzeko. Gertatu zaizu horiek martxan jarri beharra?

Momentuz ez, ez dut beharrik izan.

Esan duzu herritarren ekonomia gaizki baldin badago igartzen dela loteriaren salmentan. Koronabirusaren eraginez, hasi al zarete hori nabaritzen?

Bai. Aurtengo kanpaina oso desberdina izango da. Gabonetako loterian asko igarriko da ostalaritza itxita egotea, hor asko saltzen delako. Bestalde, hemen leihatilan normal samar ari gara saltzen. Beherakada ikusi dugu udaran; jende gutxiago etorri da eta igarri da. Hala ere, ilusioa jendeak badauka. Horren harira, bide batez, animatu nahiko nituzke zumaiarrak Gabonetako erosketak herrian egitera, aurtun inoiz baino inportanteagoa da eta.

Jende asko joaten da zenbaki jakin bat erostera?

Bai. Urtero eta astero edukitzen dugu jende asko etortzen dena bere zenbakiaren bila, bukaera zehatz baten bila...

Inoiz banatu duzu sari potolorik?

Bai, 2006an *Euromillones*-en eman genuen 9.650.339 euroko saria eta milioi bat euroko saria ere eman dugu abuztu honetan.

Horrelakoak igartzen al dira leihatilako salmentan?

Bai, igartzen da. Zabaldu egiten da berria, eta jende gehiago animatzen da probatzera.

Zer gustatzen zaizu gehien zure lanbidetik?

Niri asko gustatzen zait jendearekin kontaktua edukitzea. Bezero asko ditugu astero-astero etortzen direnak. Ezagutzen dituzu, badakizkizu beraien gustuak eta harreman horrek asko asebetetzen nau. Saria ematen dugunean, berriz, oso pozgarria izaten da. Guri tokatu izan balitzaigu baino gehiago; gure helburua betetzea bezalakoa da. Goia jotzea, berriz, Gabonetako sari potoloa banatzea izango litzateke. ■■■

Altuna

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Partidan pilatutako tentsio guztia oihu batekin soltatu zuen Jokin Altuna pilotariak. Eibarko Astelena frontoiak hartu zuen buruz buruko txapelketako partida. Behin norgehiagoka irabazita, txapela hurbilago zuen Amezketakoak. Inor ez zegoen, ordea, pilotarien lana txalotzeko; ateak itxita jokatu zen partida pilotako katedralean. Jarlekuak hutsik, eserlekuak gordeta zituzten bakarretakoak argazkilariak ginen. Fotografo bakoitzak bere aulkia zuen erreserbatuta, gainera. ■■■

DATUAK:

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 70-200 mm f2.8

Foku distantzia: 200 mm

Diafragma: f2.8

Obturazio abiadura: 1/800 seg.

ISO: 5000

Instagram: [@arnaitzrubiophoto](https://www.instagram.com/arnaitzrubiophoto)





Suari begira

Iritzi helduak, *uste handikoak, gure herriaz...*, horrela hasten da Ruperren abestia, eta ezin esan edonoiz ondo datorren baieztapena ez denik. Orain arte denok ginen ekonomian aditu, denok politologo, eta, orain, gainera, denok epidemiologo egin gara. Gauzak zer diren: zer datorren jakitea inoiz baino zailagoa den honetan, gero eta jende gehiago entzuten dut zer egin behar den esaten, beraien iritziez erabat ziur. Eta hara non, garai nahasi hauen erdian, *Baleikek* pulpitu txiki hau eskaini didan. Baina ez nago sermoietarako, ezta lixtoplantak egiteko ere, eta nire baitan gero eta gehiago ugaltzen zaizkidan zalantzak ekarriko ditut hona gaurkoan.

Lehendik ere buruan bueltaka nuen gaia izan arren, Joan Mari Torrealdairen heriotzak berriz piztu zidan buruko errota: pixkanaka-pixkanaka, badoa herri honen pizkundean giltzarri izan zen belaunaldia. Baita Zumaian ere. Militantziaren, esker txarreko isilpeko lanaren eta auzolanaren belaunaldia (benetako auzolanarena, ez marketin marka txatxu batena).

Ados, nostalgia atzerakoia da, eta gainera, belaunaldi berriak ere ez daude geldirik. Hor ditugu borborka azken urteotan beste askoren artean indarrez nabarmendutako lapiko gorri eta moreak, klase eta genero auzietatik abiatuta paradigma berriak zabaltzen. Eta gainera datorkiguna ikusita, espero eta desio dut energiaren, klimaren... lapiko

berdea ere indartzen hasiko dela. Gai unibertsalak, baina guretik eta gurerako garatzen ari direnak. Primeran.

Pizkundeko belaunaldiak ere jakin zuen garaiko gai unibertsalei eusten, gurera ekartzen, eta lapiko horiek su txikian egostekoak direnez, txinparta batetik su ederra hauspotu zuten, herrigintzarena.

Guk berriz, mikrouhinaren belaunaldikook, autonomian eta sasidekrazian jaio eta heziak, eginda (eta egintzat) jaso ditugu euskara batua, ikastolak, helduen euskarazko alfabetatzea, euskarazko hedabideak... pizkundearen emaitza den zerrenda amaiezina da. Eta orain, lapikoei begira gauden honetan, sua bigarren maila batera pasa dela dirudi.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Mundu paraleloak

Lehotik begira plazaren erdira, zioen Goenkale telesaileko sarrerako abesti batek. Ba, halaxe nengoen duela gutxi amonaren etxeko balkoian. Larunbata zen, eguraldi paregabera zegoen eta eguzkiak kalera irtetera gonbidatzen zuen. Plazara begira nengoen bai, Pulpo aurreko plaza txikira zehazki. Aurtengo urtea pikutara bidali duen pandemiaren ondorioz, elkartea eta tabernak itxita zeuden eta eguzkiak laguntzen bazuen ere, oso jende gutxi zebilen kalean. Leku horiek zabalik ez egoteak herria dezente itzaltzen zuela banekien, baina une hartan bereziki ohartu nintzen horretaz.

Leku gehiagotan ere sentitu izan dut inpresioa azken boladan; autobusetan batez ere. Behin baino gehiagotan pandemiarik ez dagoen mundu paralelo batean bezala sentitu naiz garraio publikoa jendez gainezka ikusi dudanean. Eserleku guztiak okupatuta zeudelako jende asko zutik bidaiatzen aritu da albokoarekiko distantziarik errespetatu ezinda, baina seguruak ez ziren lekuak neurri guztiak behar bezala betetzen ziren tabernak omen ziren. Hori gutxi balitz, Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak garraio publikoan isilik bidaiatzea gomendatu du; isiltasuna munduaren jabe egingo da azkenean. ■

Batzuek uste dute agian su berriak pizteko eta zaharra hiltzen uzteko garaia dela, besteek suak bakarrik irauteko nahikoa indar hartu duela eta lapikoak jada bero daudela... kontua da su zaharrari egur berria botatzea ez dagoela modan.

Abestira itzulita: *nik ere nahi nituzke halako segurtasunak eduki, baina gauzak zer diren, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi.* Nago gure herri hau atzera doala aurrera ez badoa. Suari begira irautea ez dela aukera bat, beste edonon prekozinatutako txakurjana jaten bukatu nahi ez badugu, behintzat. Eta hamarnaka galdera etortzen zaizkit burura arrapaladan: zenbaterainokoa da gure arnasgune honetan euskarazko kultur eta prentsa kontsumoa? Zer harreman du

horrek euskarazko alfabetatze mailarekin? Balio al du D ereduak euskaraz txukun irakurri, idatzi eta hitz egiteko gai diren gazteak sortzeko? Asteburupasa Bartzelona edo Londreseraino joaten garen belaunaldiko zenbat izan gara noizbait Garazi edo Tafallan? Nondik dator bat-batean euskalkiak eta euskara batua elkarren aurka jarri nahi dituen diskurtsoaren suspertze hori? Superbat eta Dragoi Bolarekin hazi garenon seme-alabak zer euskal telebistarekin hazi behar dute? Zergatik uste dugu umorea ezin dela euskara batuan egin? Zenbatak daki Zumaian zer den Errigora? Eta zenbatak nor zen Joan Mari Torrealda? (...)

Abestiarekin amaitzeko: *zaindu maite+gorroto duzun (su) hori.* ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52




AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
L
I
B
R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa


- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika



Ardantzabide, 3 behea • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56


Ardantzabide
ALTZARIAK-ARROZTEGIA

www.ardantzabide.com 

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 25 32 Tel.: 943-86 16 31

ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



Olan Degia
Arkupel
Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

f t i



finés
francés
alemany
inglés
español
catalán
suomi
basco
castellano
francés
inglés
castellano
finés
inglés
suomi
catalán

BAKUN
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza
Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadicriivet.com
www.basadicriivet.com

Goloz: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia
Larrikidietarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua

"Pandemiagatik baino gehiago, beste faktore batzuegatik ari dira aldatzen irakurketa ohiturak"

LANDER IRIZAR PRODUKZIO ARDURADUNA ELKAR ARGITALETXEAN

Elkarrizketa amaitu eta berehala argitaletxeen munduan 20 urte baino gehiago daramatzala gogoratu du Lander Irizarrek (Oñati, 1973). Elkar argitaletxean egiten du lan, produkzioko arloan. "Normalean ez ditut liburuak irakurtzen, ez ditut diseinatzen, baina bai lanak koordinatzen". Autoreak, sortzaileak, bere lana entregatzen duenetik erosleak eskutan duen unera arteko lanak gainbegiratzea da bere lanetako bat. Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Oñatiarra jaiotzez, Zumaian bizi da "azken hamabi edo hamahiru urteetan". Durangoko Azoka abiatu baino bi aste lehenago izan dugu hizketaldi hau eta, nola ez, euskal kulturaren erakusleho nagusia da elkarrizketan ateratzen den gaietako bat. "Urtero 400 bat nobedade aurkezten dira Euskal Herrian udazkenetik aurrera. Hori kristorena da. Aurten ez da halako kopururik izango, baina, hala ere, kopuru handiak izango dira".

Elkar argitaletxean egiten duzu lan, baina zehazki zer arlotan?

Produkzioko departamentuan. Editore batek testu bat irakurri edo jaso, edota musikatik erabakitzen denean disko bat aterako dela, etxe barruko dinamikan sartzen da. Dinamika horretan, originala sartzen denean editatu egin behar da, autorearekin kontrastatu, diseinatu, maketatu, erabaki zer bildumatan sartuko den, inprentara bidali, merkatura atera, arlo komertziala aktibatu... Horren guztiaren tempoan eramatzen dut. Eta gero inprimategiaren segimendu zuzena, aurrekontuak, tiradak, prezioak.

Elkarrizketa hau egiten ari garen momentuan [azaroaren 19an egin genuen] bi aste falta dira Durangoko Azoka hasteko. Urte normal batean, une hauek zoramena izango ziren, ezta?

Bai, bai. Aurtengo urtea berezia izaten ari da, baina bestela zoramena izango zen. Egia da, baita ere, argitaletxeak aldatzen joan gara. Garai batean, inprimategitik zuzenean Durangora eramaten genituen liburuak; beharrak hala eramaten gintuen. Orain, denok lanak hobeto egiten ditugunez, piko handia izaten dugu, baina gure produkzioa lasaiago eramaten dugu. Hori produkzio aldetik. Baina promozio aldetik bai izaten da zoramena. Aurkezpen pila bat izaten da, eta azaroan egunero daude liburuen eta diskoen aurkezpenak. Komunikabideekin elkarrizketak ere lotu behar izaten dira. Orain lanak gehiago banatzen ditugu, eta merkatura ere modu orekatuagoan heltzen dira. Guk urtea bitan banatzen dugu: udaberria eta udazkena; udaberrian produkzioko zati bat argitaratzen dugu, eta udazkenean bestea. Eta udazkenekoa ez dugu uzten Durangoko bezperetarako. Irailean hasten gara nobedadeak argitaratzen, eta horrek azaroraino edo abenduraino ere irauten du.

Bestela gerta daiteke tsunami horren barruan liburu edo disko asko galtzea, inor ez ohartzea atera direla ere.

Asko galtzen dira hor, eta lan onak ere bai. Idazle hasiberriak, adibidez. Proiektu on asko galtzen dira, merkatuak horiek guztiak hartzeko gaitasunik ez duelako. Garena garelako, gure merkatua dena delako. Produkzio asko dago, eta liburu asko oihartzunik gabe pasatzen dira. Pena da hori, baina tsunami horrek horretara eramaten gaitu.

Lehen Durangon saltzea edota erostea primatzen zen; orain Durangon autorearekin egoteari ematen zaio garrantzia. Autorearen sinadura lortzea da kontua; idazlearekin edo musika taldearekin argazkiak ateratzea. Durangok hori ematen du, autorearekin gertutasuna, autore beraiek predisposizioarekin doazelako.

Nola ari zarete bizitzen aurtengo Durango arraro honen bezperak?

Aurten Gerediagatik [Durangoko Azokako antolatzailea] asko kostatu da erabakitzea zer nolako azoka egingo zen. Azoka fisikoa beti izan da, eta beti bultzatuko da. Baina fisikoaz gain, online salmenta egotea ere nahi zuten antolatzaileek. Azkenean azoka fisikoa atzera bota dute, baina orain gutxi. Hor geratu gara denok deskolokatuta; online izango zela bagenekien, baina online horren dinamika ez genekien.

Aukera desberdinak aztertu dira, baina Gerediagak abenduko zubiko azokako zentralitatea mantendu nahi izan du. Logikoa ere bada. Webgune bat sortu dute, denda izango dena, eta guk, argitaletxeok elikatu dugu, gure katalogoa eta materiala igoz. Salmenta, gero, beraiek egingo dute, azokak irauten duen denbora horretan, abenduaren 4tik 8ra

Durangoko Azokaren irudia ezaguna da: standak eta pasilloak jendez gainezka. Zuk uste duzu erosleak prest daudela liburuak, diskoak, online erosteko?

Zalantza handiak daude. Bi ikuspuntu egon daitezke. Batetik, jendea Durangon ohituta dago bertara joatera, masifikaziora, uste baino gauza gehiago erostera. Hortik, ordenagailu baten aurrean eseri eta webgune baten bidez erostera pasako gara. Hor batetik pentsa daiteke mugimendu gutxi egongo dela. Baina, gero euskaldunok badugu egoera txarretan, gogorretan, bultzada emateko sen hori. Bide hori jorratzen bada, salmenta izango da, baina ez da izango inola ere Durangoko Azokak ematen duen salmenta horietako bat.

Salmenta fisikoa desagertzeak zulo galantak sor ditzake argitaletxe batzuetan...

Klaro. Eta gainera urte hasieran egiten duzun planean ziurtzat jotzen duzu Azoka egongo dela, salmenta horiek izango dituzula, diru hori helduko zaizula; horrekin kontaktzen duzu. Durangoko salmenta jaisten ari da, dena jaisten ari den bezala. 2008ko garaitik, orduko krisialditik, dena ari da jaisten; kulturen, behintzat. Baina, fakturaziotik kanpo, han egon behar da. Euskal kulturaren erakusleho handi bat da; Azoka baino gehiago da zentzu askotan. Ikuspuntu komertzial eta merkantila badauka, noski, eta eduki behar du, baina guk urtean argitaratu dugun hori, edo urteetan egin dugun hori erakusteko, eta jendeak ikusteko balio du.

Aurtengo Durangok hiru funtzio beteko ditu. Batetik, online salmenta dago, eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Bestetik, Durangok bazuen autoreen eta jendearen arteko gertutasun hori. Hori ezin denez egin, jendeak ezin duenez elkartu, hiriburuetan zuzeneko aurkezpenak egingo dira Azokaren egunetan. Hirugarren funtzio bat ere bada aurten: Azoka amaitutakoan, jarraipen bat izatea Euskal Herriko liburu dendetan; hau da, Durangoko Azokari atxikimendua egitea liburu dendek keinu bat bezala. Atxikimendu horren bidez, liburu dendek, izan txiki, ertain edo handi, Durangoren amaieratik Gabonak arte presentzia emango diote euskarazko liburuei. Gertatzen dena da Ken Folletten liburu bati, adibidez, presentzia handia ematen zaiola, eta euskarazkoak ez direla ikusi ere egiten. Euskal produktuek ikusgarritasun falta dute, publikoa minoritarioa delako, eta hedabideek askotan ez dietelako tarterik eskaintzen. Ez komunikabideek, ezta lagundu beharko luketen instituzioek edo erakundeek ere. Durangok, abenduko zubi horretan, euskal produktuei erreferentzialtasuna ematen die. Irla bat, da bost eguneko irla bat.

Beste gauza bat ere badago: gu urte osoan bulego batean gaude, ordenagailu aurrean, eta kaleko jendearekin harremanik ez dugu izaten. Asko jota, komunikabideekin. Guretzat kristoren esperientzia da han egotea. Erosle batek zer galdetzen dizun, zer zalantza dituen, liburu bat hartu eta zer aurpegi jartzen duen, paso egiten duen edo bost minutu geratzen den begira. Edo autore bat ikusten duenean zer feedback duen. Hori bost egunetan ikusten dugu; urtean zehar ez dugu halakorik. Gero, Durangoren isla izaten dira hurrengo asteak eta Gabonak. Jarraikortasun bat izaten du.





**"EROSTEA BAINO, DURANGON
AUTOREAREKIN EGOTEARI EMATEN
ZAIO ORAIN GARRANTZIA"**

**"IRAKURKETA OHITURAK
IKARAGARRI ALDATU ZAIZKIGU,
MUGIKORRAREKIN, TABLETAREKIN"**

**"LIBURUGINTZAK JARRAITUKO DU,
ETA GURI TOKATZEN ZAIGU
JARRAITZEA BORROKA HORRETAN"**

Durangon badu jendeak oparitzeko liburuak erosteko ohitura; edo batzuk hor ikusi eta gero liburu dendetan erosten dituzte.

Gakoa izango da hor erosten duenak urte osoan zehar ere erostea, ezta?

Lehen normala zen pertsona batek bi, hiru, lau liburu erostea. Orain jaitsi da, eta bat edo bi erosten ditu. Asko aldatu da irakurlearen figura. Agian izango da urte osoan irakurtzen duelako. Badaude datuak diotenak urtean hamar bat liburu irakurtzen dituela jendeak. Ez da idealena, gehiago izan beharko luke, baina hori da media. Ohiturak ikaragarri aldatu zaizkigu, mugikorrarekin, tabletarekin. Irakurtzen dugu ikaragarri, baina ez liburu oso bat; Interneteko artikulua zati batzuk irakurtzen ditugu, sare sozialetako edukiak. Mundu digitalarekin zer gertatu zaigu: lehen jendeak asko zekien gai bati buruz, edo gai batzuek, eta orain jendeak gutxi daki gai askori buruz. Jendeak titularra daki, baina atzetik dagoena ez.

Euskal kulturako izen handiek Durangoko garaian aurkezten dituzte lan berriak. Aurten, ezohiko egoera honekin, berdin jokatuko dute?

Dudak izan genituen argialetxe guztiok. Ez genekien zer ikusgarritasun izango genuen, merkatuak nola jokatuak zuen, zer salmenta izango diren... Urte hasierako plan editoriala mantendu dugu, ehuneko txiki batean jaitsita. Aurtengo Durangon ere autore esanguratsuen obrak izango dira. Nik ez dut uste jendeak idazteari utzi dionik, edo, behintzat, bere originala ez du utzi hurrengo urterako. Argialetxeok ere ez. Apustua aurtengorako egin dugu.

Argialetxeei bakarrik ez, egoera zail honek eragingo die artista beraiei ekonomikoki.

Liburugintzan ez dago profesional-profesionalik horretara bakarrik dedikatzen denik. Batzuk badaude idaztetik bizi direnak, baina liburuak idazteaz gain, ez dakit, telebistako gidioak ere idazten dituzte, hitzaldiak ematen dituzte, komunikabideetan zutabeak idazten dituzte... Musikan bai, musikan pandemiak eragin handia izan du; musikariei, eta haien inguruan mugitzen diren guztiei, eragin die pandemiak.

Musikaren kasuan beste gauza bat gertatzen da. Durangok balio izaten du disko fisikoak, CDak, argitaratzeko. Badakizu han salduko direla, baina irla hori desagertzen denean oso gutxik erosten dituzte CDak. Biniloak, bestalde, badu urte osoko bidea; biniloak urte osoan erosten ditu jendeak.

Bestela streaming bidez entzuten da orain musikak. Pentsatzen dut musikariek, taldeek, aterako dituztela diskoak formatu fisikoan, baina disko hori lehen lotuta egoten zen sinadurarekin, kontzertuarekin. Horri guztiari proiektua deitzen zitzaion, eta diskoa bera proiektu horren zati bat zen.

Elkar, gure mikrokosmos honetan, handia da bere txikitasunean. Zuen kasuan agian ez, baina izango dira pandemia honen ondorioz gaizki pasako duten argitaletxeak.

Ez dakit, baina nik uste bakarren bat eroriko dela, eta gaizki bat baino gehiago ibiliko da. Batzuk eusten ari diren bezala, batzuek sufrituko dute. Eta eusteko kapazitatea duenak jarraituko du, baina gaitasun hori ez duenarentzat zaila izango da. Jarraitu arren, dena lotuta doa egiten den inbertsioarekin eta jasotzen den diruarekin. Argitaletxe batek erabaki dezake sei edo zortzi liburu atera beharrean, lau bakarrik ateratzea, edo hiru. Gutxiago jasoko dute, baina gastuak ere txikiagoak izango dira.

Urte hasieran ez zenuten pentsatu ere egingo halakorik gertatuko zela...

Ez, ez. Erabat deskolokatu gaitu, eta auskalo zenbat hipotesi egin ditugun. Urte hasierako planak aldatuko ditugu? Mantenduko ditugu? Jaitsiko ditugu? Zenbat? Noiz? Zertxobait jaitsi dugu, baina gutxi. Kopuruak esateagatik, % 5 edo % 10 jaitsiko genuen. Urtean 50 bat titulu ateratzen baditugu, 45 atera ditugu aurten. Saiatu gara mantentzen.

Pandemiaren lehen olatuan kulturak izan zuen presentzia; bigarren olatu honetan, ostalaritzarekin batera, paganoetako bat bihurtu dela dirudi.

Gitarra hartu eta pertsona bat balkoira ateratzen bada, horrek kristoren efektua sortzen du;

jendearengana iristen da, eta jendeak hori estimatzen du, egoera horretan bizipoza sortzen du eta. Bigarren fasean ez da hori gertatu. Ez dakit jendea ere nola dagoen animikoki. Erakundeei dagokienez, nik uste instituzioek beraiek ez dakitela ondo neurtzen zenbaterainoko ondorioak izan dituen pandemiak kultura munduan, zenbateraino lagundu behar duten, eta, esango nuke, non lagundu behar duten. Baina garbi dago lagundu behar dutela. Erakunde bati tokatzen zaiola laguntza hori ematea.

Kultur sailburuak berak esan zuen ez zuela egokia ikusten kultur arloari laguntza berezia ematea.

Eta gero esan zuen kulturako sektore guztiakin bilduko zela. Lehen esan duguna, musikaren sektorea bizitzen ari den kaltea nabarmena da. Hor mugitzen ari den jende guztia sufritzen ari da. Euskal kulturak beti behar du laguntza eta beti beharko du, minorizatutako hizkuntza batean ari garelako lanean. Erakundeek hori badakite, baina gehiago lagundu behar dute. Eurek badute erresponzabilitate hori.

Egunen batean pandemia hau pasatzen denean, aurretik genuen egoerara itzuliko gara, edo dena desberdina izango da kultura munduan?

Bada, ez dakit erantzuten, baina tokatzen zaigu lan egitea aurreko egoerara ahalik eta gehien hurreratzeko. Beti ibili gara justu, inoiz ez gara ibili aparraren gainean. Beraz hor ibili garenoi tokatzen zaigu borrokan jarraitzea. Ez dakit neurtzen zer gertatuko den, edo zer ondorio izango dituen. Liburuak jarraituko du, eta musikaren kasuan beste debate bat dago. Liburugintzak jarraituko du, eta guri tokatzen zaigu jarraitzea borroka horretan. Pandemiagatik baino beste faktore batzuegatik ari dira aldatzen irakurketa ohiturak. Lehen aipatu ditugun leiho horiek daude hor, mundu digitala. Beste korrante edo beste toki batzuetatik datozen ekintzak dira.

Eta zein izan daiteke euskal kulturaren erronka mundu berri horretan?

Ikusgarritasuna bilatzen jarraitu behar dugu. Ez bagaituzte ikusten, pentsa dezakete ez dugula existitzen. Baina jarraitu behar dugu, existitzen dugulako eta existituko dugulako. Merkatua elikatzen jarraitu behar dugu. Hor badago egileen eta irakurleen arteko lotura bat, eta lotura hori egunen batean hausten bada, gero berriro martxan jartzea ikaragarri kostatuko da. Pandemiagatik hilabete eta erdian liburu dendak itxita egon dira, baina gero buelta eman diogu, odola berriro zirkulatzen hasi da, eta hori inportantea da. ■■■

Motzean

- Harritu zaituen liburu bat: Miren Amurizaren *Basa*.
- Txoratzten zaituen musikari bat: Ruper Ordorika.
- Barrenak mugitu dizkizun filma bat: *Touching the void*.
- Ahozabalik utzi zituen kontzertu bat: Ben Harper, 2004an, Baionako zezen plazan.
- Miresten duzun artista bat: Mikel Laboa.

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarrate, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98
asadorbasusta@hotmail.com



EDU
ZUMAIAKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com



RPS 18/16

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona



Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa



Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak



MISTOA

San Telmo12 943-86 07 60

Tokiko saltokiak, supertze bidean

Zer litzateke Zumaia bere dendarik gabe? Galdera horrekin abiatu zen konfinamenduaren ondoren Zumaiaiko Udalak herriko komertzioari bultzada emateko abiatutako Errotaherria kanpaina. “Marea errotak dira; herriak mugitzen dituen errotak. Herriak ematen diena, beraiek bueltan ematen diote herriari”. Bizitza.

Koronabirusak hankaz gora jarritako garai ziurgabe eta ezegonkor hauetan, hilabete zailak igaro dituzte herriko merkatariak. Salmenta handieneko garairako prestatzen ari dira orain, Gabonetarako. Jaien bezperan, Kaïoa dendako Ane Agirrebeñarekin, Juanjo Larrañaga harakinarekin eta Miren Agirre ile apaintzailearekin bildu da *Baleike*.

Ezberdin eragin die hirurei koronabirusak sortutako krisialdiak beren negozio txikietan, baina kezka bizi izan dituzte pasa diren hilabeteak. Hala eta guztiz, hirurak agertu dira eskertuta herriak eta bezeroek emandako erantzunarekin. Agirrebeñak Zarautzen, Azpeitian, Orion eta Zumaian ditu Kaïoa dendak, eta herriko merkatarien eta bezeroen artean giro ederra nabari du. Erakundeek komertzioei bultzada emateari dagokionez, noraeza somatu du; ez da, ordea, Zumaiaiko Udalaren kasua, Agirrebeñaren arabera. Errotaherria kanpainaren barruan bonoak garaiz ateratzea txalotu du, eta, gainera, sistema egokia dela uste du bezeroak herriko komertzio txikietan kontsumitzera bultzatzeko. “Ez dugu ibili behar izan Udalari ezer eskatzen, haiek jarri ziren gurekin harremanetan, eta proposamena bota ziguten”, azaldu du.

Agirre ile apaintzailea izan zen konfinamendua baino lehen halabeharrez establezimendua itxi zuen lehenengoetarikoa. Izan ere, Otezuri adinekoen egoitzan soilik zuen lehen ile apaindegia: “Pare bat aste lehenago Otezuriko medikua hasi zen esaten laster itxi beharko nuela, baina urrun ikusten nuen. Kanpotik etortzen ziren bezeroei eskuak garbiarazten-eta hasi ziren, eta astebeteren buruan itxi zidaten”.

Nolanahi ere, konfinamendua aukera izan da Agirrerentzat. Hain zuzen, Bidezaretza kalean zuen lokal bat egokitu eta bertan zabaldu

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Miren Agirre ile apaintzailea.

Juanjo Larrañaga harakina.

PANDEMIAK EZBERDIN ERAGIN BADIE ERE, KEZKAZ BIZI IZAN DITUZTE PASA DIREN HILABETEA

ILE APAINTZAILEAK DIO GABONETAN LAN GEHIAGO IZATEN DUELA, BAINA AURTENGOA EZBERDINA IZANGO DELA

du ile apaindegia. “Baneukan kezka zer egin behar nuen, Otezuri zabaltzen zutenean ere banekielako ezin izango nuela bertan lan egin. Otezuri inguruan lokalak begiratzten hasi nintzen. Bi bakarrik zeuden libre, baina salgai zeuden. Gero, Erribera kalean begiratu nuen: lokalak bazeuden, baina obra egin behar zen, ura pasatu, gutxieneko instalazioa...”, azaldu du. Etxean lan egitea otu zitzaion orduan, baina legalki horretarako aukerarik ez zuela esan zioten gestorian: “Iñaki Unanuek esan zidan ezin nuela etxean lan egin; haren lankide Luisek ere gauza bera esan zidan. Pentsatu nuen hemen, Bidezarreta kalean, ere jarri nezakeela, baina Otezuri gusturik nengoen, eta ezin nuen planteatu bi lokal mantentzea. Etxean ezin nuela lan egin jakindakoan, erabaki genuen Bidezarretakoa lokalean obra hastea. Berrogei egunetan egin genuen”.

Hala ere, Otezuriko ile apaindegia mantendu du: “Langile bat kontratatu nuen, ez nekielako hau ongi aterako zen, eta pena ematen zidalako hura lagatzeak. Ur handitan sartu naiz, baina momentu pertsonal onean harrapatu nau honek: seme-alabak koskortuta dauzkat, eta lanerako ilusioa daukat”.

Bidezarretakoa lokala egokitzeko egun horiek “zoramena” izan ziren Agirrarentzat; etxean eskaintzen zuelako zerbitzua. Pozik dago, hala ere, ile apaindegiaren irekierarekin: “Ordura arte, hamaika urtean, Otezuriko egoiliarak eta kanpoko bezeroak

bateragarriak ziren, baina koronabirusarekin erabaki beharra izan nuen: edo aitona-amonak, edo kanpokoak. Kanpoko bezero horiei eusteagatik zabaldu nuen hori, eta pozik nago, egia esan”.

Garai berrietara egokitzen

Larrañagak lan egin du konfinamendu aldia ere. “Ezin kexatu”, dio harakinak. Basadiko harategiak WhatsApp aplikaziotik eskariak egiteko zerbitzua jarri du martxan etxealdian, eta bezeroek sarri erabiltzen dute aurrez generoa eskatzeko. Bizum bidez ordainduta utzi dezakete, harategitik pasatu eta itxaron gabe beren eskaria jaso. Orain, langile guztiak aldi berean gaixotzea ekiditeko, bi txandatan egiten dute lan.

Agirrebeñak dio “katastrofiko” zeudela konfinamenduaren garaian. Langileen artean giro oso ona dute, eta oso “emozionalak” dira. “Nik egun txarrak pasa ditut, baina orain ondo gaude”. Agirrebeñak dio berarentzat sostengu handia izan dela Lore Garciaarena, Gertu merkatarien elkarteko dinamizatzailea. Kañoa denden nagusiak dio koltxoi bat edo lapiko bat edozein unetan sal daitekeela; ez, ordea, arropa. Denboraldika egiten dute lan; are gehiago, hilero ekartzen dute arropa berria udaberrian. “Zoramena” izaten da. Kañoan ere, ordea, lehendik buruan zituzten lanak egiteko baliatu dute koronabirusak eragindako etena.

Internetez erosteko joeraren gorakadaz jakitun, webgunea prestatzen ari dira. “Zaila da handienekin lehiatzea”, dio





Ane Agirrebeña, Kaïoa denda.

Agirrebeñak. Lehen ere bazuten jartzeko ideia, baina konfinamenduan bota zuten irteteko pistola tiroa. Lana eskatzen du, baina garai eta ohitura berrietara egokitzea beharrezkotzat jotzen du Kaïoako nagusiak.

Agirrek nabaritu izan du Internet bidezko erosketen eragina. “Nik zerbait eskaini, xanpuak, makillajeko produktuak, eta igarri izan dut Internetetik erosi izan duela bezeroren batek”, dio. “Gaur egun guk ere sal dezakegu Amazonen, eta horren inguruko ikastaro bat egin nuen lehengo batean. Begiratzen hasi nintzen, eta ohartu nintzen Amazonek nik baino garestiago dituela produktuak”, azaldu du. Agirre ere sare

sozialetan ezagutzera ematen ari da orain. “Buruko min handiena horrek ematen dit. Lehen ez nituen erabiltzen, orain hasi naiz. Orain bonbardatu egin behar dudala esaten didate: ezagutzera eman behar dudala nirea, probatu egin behar dutela. Lehengo bezeroak baditut, baina adinekoren parte hori ez daukat, eta bete egin behar dut nire lanaldia osatzeko”, azaldu du ile apaintzaileak.

Gabonen zain

Ile apaintzaileak dio Gabonetan lan gehiago izaten duela, baina aurtengoa ezberdina izango dela. Gainera, gainerako urteetan ez bezala, beste egoera batean harrapatuko du Agirre Gabon festak: “Niretzat berria izango da, kalean nagoelako orain. Lehen Otezuri barruan nengoen. Aurreko batean, adibidez, pentsatu nuen eskaparatea ere jarri beharko dudala”. Kalean komertzio bat duen lehenengo Gabonak izango dira Agirrerentzat, eta ilusioz ari da lanean Gabonen zain.

Larrañagak, berriz, urteak daramatza Gabonei begira lanean. Bada azaroaren erdialderako janaria eskatzen dionik ere, gero izozteko. Batez ere, azpizuna eta txuletak saltzen ditu garai horretan. Aurtengoan, ordea, “zaila” egiten zaio Larrañagari Gabonetako

salmentak aurreikustea. Uste du festak ospatzeko familian elkartzea ezinezkoa izango dela, eta gazteek aurrez prestatutako janaria erostea espero du garai horretan. Besteak beste, oilasko, txerrikume eta saiheski erreak prestatzen ditu harakinak.

Kaïoa jantzi-dendan erregetarako egiten dute lan gehien. “Olentzero gehiago da haurrei begira egiten den zerbait, gure etxean, behintzat. Guk bezero helduagoak ditugu, eta, beraz, erregetarako egiten dugu lan gehien”, dio Agirrebeñak. ■■■

Abian da ‘Gabonetako Errotaherria’ kanpaina

Herriko komertzioari bultzada bat emateko asmoz, deskontu sistema bat prestatu du Zumaiako Udalak, Gertu elkartearekin elkarlanean. Herriko establezimenduetan 15 euroko erosketagatik 5 euroko deskontua egingo diete bezeroei, *Errotaherria* kanpainaren barruan.

Udalak jakinarazi du itxita dauden taberna eta jatetxeetan ere erabili ahal izango direla bonoak, eta itxita dauden jatetxe eta tabernen kasuan, establezimenduak berriz irekitzeko baimena dutenean egingo dituzte deskontuak. Guztira, 100 establezimenduk baino gehiagok egin du bat deskontu sistema honekin.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:

berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Sagar ekologikoari zukua ateratzen

Aitor Eizmendi, sagardogile handi bat

30 urte inguru dira Ibañarrietan baserria hartu eta mila sagarrondo baino gehiago landatu zituztela. Poliki-poliki, Ekain sagardo ekologikoa egiteko proiektuak indarra hartu du eta produktu berriein saiatu nahi du orain Aitorrek: muztioa, ozpina...

Testua: **Xabier Azkue**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Ordubete pasatxoko bidea dago Zumaiako erdigunetik Iruretxiki baserrira, Agoteko harrobi izandakoaren gainera. San Lorente eta Arroa aldera begira daude aurten ere milaka kilo sagar eman dituzten sagastiak. Baserriaren atzeko aldean eraiki zuten duela dozena bat urte sagardoa egiteko lantegia. Ate handia zabalik, bezero batekin berriketan ari da Aitor. Edukiontzi bat dago kanpoan patsez betea; dolarean sagarrak zukutu eta geratzen diren hondarrak dira, eta laster etorriko da baserriaren bat bila, ganaduarentzat jaki ezin gozoagoa delako. Lantegiaren atzeko aldean biltegi karratu bat dago sagarrez betea, garbitu, eta, hala tokatzen denean, matxakan txikitu eta dolarera bideratzeko prest.

Badator Aitor, gizon handia bezain jatorra; ehizarako egokiak diren begi erdi itxi horiekin, irribarretsu eta adarra jotzeko prest beti.

Lehenbiziko galdera, derrigor, ea zer moduzko uzta izan duten. “Ona. Ezurtea da aurtengoa, eta toki batzuetan oso sagar gutxi jaso dute. Guk 20.000 kg-tik gora biltzea espero dugu aurten”. Lanik handienak eginak dituzte jada, laurdena baino gutxiago falta dute. Aurreko urte batzuetan 100.000 kg baino gehiago ere bildu izan dituzte, baina garrantzitsua da ezurteetan ere gutxieneko bat ziurtatzea, eta horretarako udaberrian kimaketa ondo egin behar da, inguruko belarra moztu eta izurriteak zaindu.

Iruretxikin 5 bat hektareako eremuan 1.600 sagarrondo baino gehiago dituzte, eta 30 sagar mota inguru, horien artean sagardoa egiteko barietate oso estimatuak: Moko, Txalaka, Urtebi... Etxerako egiten zuten hasieran sagardoa, baina sagar asko jasotzen hasi zirenean, sagardotegietara saltzen hasi ziren. Ekologikoan landutako sagarra zer gutxi ordaintzen zuten ikusita, apustua egitea erabaki zuen Aitorrek:



irrimarra



inbertsio batzuk egin eta sagardogintzan hasia. Eta zergatik ekologikoaren aldeko apustua? “Natura, ingurumena eta osasuna gehien errespetatzen dituen aukera delako, kontzientzia ekologikoa nabarmen zabaltzen ari delako, eta etorkizuna horretan ikusten dugulako”.

Ez dira asko sagardoa etxeko sagarrekin bakarrik egiten duten sagardotegiak, eta gutxiago ekologikoki lantzen dutenak. Aitorrek aitortu digunez, lagungarria da *Euskal Sagardoa* markan parte hartzea, etxeko sagarrekin egindako sagardoak bereizten dituelako, baina “sektoreak ez du benetako apusturik egin oraindik, askok jarraitzen dute produkzioaren zati handiena kanpoko sagarrekin eta pestizidekin landutakoekin osatzen”.

Altzairuzko upel handiz hornitua dute lantegia, eta 43.000 litro sagardo gordetzeko gai dira. Orain upeletan sartutako sagar urak hartzidura prozesuari ekingo dio era naturalean; 4-5 hilabetean sagardoa egingo da, eta puntu egokira iritsitakoan, botilaratzeko prest egongo da. “Betiko sagardoa da gurea, baliabide berriekin egina”.

Muztioak, berriz, ez du hartzidura prozesurik, pasteurizatu eta zuzenean botilaratzen da sagarraren zukua, alkoholik gabeko edari gozoa. 400 botila ekoitzi ditu dagoeneko, eta aurten beste 1.500 ere egin nahiko lituzke, jendeak gero eta gehiago eskatzen du. Jaso berria dute, gainera, hirugarren produktu bat ekoizteko baimena: ozpin ekologikoa. Aitorrek azaldu digunez, “ez da ozpin arrunta, iragazi eta pasteurizatu gabekoa da, eta propietate terapeutikoak ere baditu”. Litro erdiko botilatan eskaintzen hasiko da laster, Ekain izenarekin hori ere.

Ibañarrietatik aparte samar dago Ekain, baina lotura estua dute, familiaren jatorria Sastarrain baserrian dagoelako, haizuloaren ondo-ondoan.

Rufino eta Pastora gurasoek lagunduta hasi zen sagardogintzan Aitor. Lehen urteetan familiartekoez, kuadrillako lagunak eta ingurukoek laguntzen zioten sagarrak biltzeko garaian, auzolanean; jatordu ederrak egindakoak gara gu ere. Azken urteotan, ordea, ezin da hainbeste lan borondatez egin. “Trailean eta urrian 3-4 langile hartzen ditut sagar asko dagoenean, eta horrek aukera ematen dit lanak errazago antolatzeko”.

Orain emaztearen laguntza du Aitorrek. Iratxe eta bien asmoa da sagardo naturala egiten jarraitzea, eredu industrialala alde batera utzita. Baserriaren inguruan lan batzuk egin eta bisita gidatuak prestatzen ari dira, argazki eta panel handien bidez azalpen batzuk eman eta bisitariei sagardoaren prozesua erakusteko, sagarrondotik hasi eta botilaraino. Horrez gain, taldeentzat bazkariak eta afariak ematen hasteko asmoa ere badute datorren urtetik aurrera. “Ez jatetxe edo sagardotegi handien moduan, enkarguz eta aldi

Aitor Eizmendi Aizpurua

- **Adina:** 51 urte.
- **Ikasketak:** oinarrizkoak Ikastolan eta batxilergoa Zarauzko Institutuan.
- **Lanbidea:** ostalaritzan eta altzarigintzan ere ibilia da.
- **Zaletasunak:** natura guneetan eta itsasoan ibiltzea.
- **Amets bat:** urrutira bidaiatzea, gustura ezagutuko lituzke Afrikako oihanak edo polo inguruetan aurora borealak ikusi, esaterako.



bakoitzean talde bakarra hartuz baizik". Ez zaio lantegi arrotza egingo Aitorri, familian Hostal Zumaian hasi eta Azpeitiko jatetxe batean ibili eta gero, ohituta dago parrillan eta sukaldean jatordu handiak prestatzen.

Bezero batzuk baserrira etortzen zaizkio aldi behin sagardo bila; taberna eta elkarte batzuetara, berriz, Aitorrek berak eramaten du sagardoa. Bitxia da nola, esaterako, Bartzelonako Euskal Etxera ere bidaltzen duen sagardoa. Inguruko toki batzuetan eskaintzen

dute, konparazio batera Iraetako oilasko erretegian eta Xoxoteko aterpetxean, baina badu arantzatxo bat Aitorrek: "Marka da, Ondarroan gehiago saltzen dut sagardoa Zumaian bertan baino. Jende askok betiko markak erosteko joera duelako edo...". Horregatik hasiko da laster gure denda eta tabernetan jatorri izendapeneko 1565 sagardoa eskaintzen, itsasoaren omenez egindakoa. Oinez ordubete pasatxora edo autoz 10 minutura, egiozue Aitorri bisita. ■

**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etkez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18
943-86 26 11
www.floristeriabasusta.com

BAZKIDE KLUBEKO ZOZKETAK



Juanjo Larrañaga: Jokin Irigoien.



Errigora: Esti Mora eta Iñaki Arrieta. Baten bikotekideak eta bestearen seme-alabek jaso dituzte sariak.

ABENDUAK 7

Marlik taldearen disko berria.

ABENDUAK 14

Juanjo Larrañaga harategiko produktuak.

ABENDUAK 21

Agurtzane okindegiko tarta.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

TIPITAKI: Gosariak.

EKAINBERRI: Bi sarrera.

SASTARRAIN: Bi sarrera.

JUANJO LARRAÑAGA: Produktuen zozketa.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko sarrerak.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus


Telefonoz: 943-86 15 45



Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zortzi dira.

Marraztu eta Margotu

Apaindu Gabonetako izeia. Izan zaitetz ausarta eta jar itzazu inork esperoko ez lituzkeen elementuak.



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA

Pateita Elkezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

KALARI

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

LOOK
INDUSRY

Maite Elosua
Pelukexi

Auzartzen direnerezat eta ez direnerezat.
Zu zara nire bezeroa.

Erribera kalea 7, 2 atzealdea
638 99 90 38

CROISSANERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua **636 86 78 12 (Zumaia)**
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar indusirgunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indusirgunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Pixka bat haserre, haserre, oso haserre



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Haserrea onuragarria dela esan izan dugu, baina egia da haserretzeko modu ezberdinak daudela. Gure seme-alabak beraien autonomia bereganatzen hasten direnean, haserrealdiak azaltzen dira, eta orduan erronka garrantzitsu bat agertuko zaigu.

Zer egin dezakegu haur batek bere haserrea eta amorrua azaltzen duenean eta ez denean gai bere jarrera kudeatzeko?

Lehenik eta behin, ulertu. Haserrea beharrezkoa da, ohikoa da, eta bere garapenaren etapa bat da. Haserrealdiei esker, bere mugak jartzen ditu eta bera burua bereizten du. Baina zer egin dezakegu guk, heldu bezala, horrelako momentuetan?

Kontuan izan eredia geu garena; beraz, guk geure haserrea kudeatzeko dugun modua bereganatzen joango da. Haserrea azaltzeko modurik egokiena hitzez gure sentimenduak eta beharrak azaltzea da; beraz, helburua hori izango da. Nola egingo dugu?

1-Bere ondoan egon behar dugu. Nahi baldin badu eta

uzten badigu, laztandu edo besarkatu egingo dugu, eta bestela, hor egongo gara. Bera urruntzen bada bere espazioa behar duelako, errespetatu egingo diogu. Komunikazio ez berbala zaindu. Bere garunak, gure seinale ez-berbalak jasoko ditu berbalak baino lehen eta eragina horrek izango du. Beraz, leunak izan zentzu guztietan. Horrek lasaitu egingo du.

2- Bere emozioa onartzen dugula azaldu, eta berari onartzen lagundu: "Ikusten dut haserre zaudela, amorratuta zaude, hori ondo dago, azaldu eta sentitu zure haserrea, eskubidea duzu".

3-Gertatzen zaiona hitzetan jartzen saiatuko gara. Adibidez: "Parkean geratu nahi duzu, badakit eta ulertzen dut. Asko gustatuko

litzaizuke hemen geratzea. Etxera joan behar dugu eta horrek pena ematen dizu, ondo ari zara pasatzen eta".

4-Aukerak eman. Konturatu behar dugu haurrentzat oso zaila dela aukera ezberdinak ikustea. Beraiek aukera bakarra ikusten dute eta gure lana izango da dauden beste aukerak erakustea. Adibidez: "Etxera joaten garenean, zure egurrezko blokeekin jolasteko aukera izango dugu. Edo hainbeste gustatzen zaizun liburua irakurriko dugu. Edota afaria egiten lagundu beharko didazu! Zure laguntza oso garrantzitsua da niretzat!". Askotan hori guztia eginda ere, haurrak gaizki pasatzen jarraitzen du. Gu momentu oro bere ondoan egongo gara bere frustrazioan laguntzen. Pixkanaka lasaitzen doan heinean, goxatu egingo dugu, eta bere arreta emandako aukeretara bideratuko dugu.

Horrelako egoerak oso zailak izan daitezke eta beti ezin izango diogu lasaitasunari eutsi. Hori horrela da, eta ez da ezer gertatzen. Baina gogoratu eredu garena, eta lasaitasunari eutsiz gero, lorpena izango da, eta aurrerapauso bat emango dugu. ■

**HASERREALDIEI
ESKER, BERE MUGAK
JARTZEN DITU ETA
BERA BURUA
BEREIZTEN DU**

PUBLIZITATEA

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

SOLOZABAI
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com



Talaira
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Talaira
Taberna

Erbera kalea
20750 **ZUMAIA** (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73



TTAKUN TABERNA

Izusterri, 3
tel. 943-86 52 89



TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (hodilloa)
Saltxitok, oilskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com



UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 **Zumaia** (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheko
943-14 32 78



Zalla
TABERNA

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upelk Plaza 3 • 943-86 23 87 **ZUMAIA**



ZUMAIA

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



Jarri zure
iragarkia

BALEIKEn
943-86 15 45

ASA **ASESORIA ARIN**

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheko • ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 • asesoriarin@asesoriarin.com



Pirinioak geoparkean: arrokak plastilina balira bezala

Gure mendiak koral uharrietan sorturiko kareharriez osaturik daude. Behin itsasoa izan zena gaur gure tontorretan ageri da. Noiz eta nola gertatu zen horrelako eraldaketa harrigarria?

Pirinioen sorrera

Ez da erraza sinesten. Euskal Herriko arroetan aurki ditzakegun fosil itsastarrak adierazten digute duela 200 eta 30 milioi urte bitartean gure lurraldea Iberia eta Europa banatzen zituen itsaso tropikal baten azpian egon zela.

Baina, geologiak maiz erakusten digu paisaiak eta geografiak aldatu egiten direla. Duela 80 bat milioi urte


Testua: **Asier Hilario Orus -
Geologian doktorea eta
Geoparkeko koordinatzaile
zientifikoa.**



80 Mu



20 Mu



Pirinioen sorreraren eskema sinplea.

GURE LURRALDEA IBERIA ETA EUROPA ARTE ITSASO TROPICAL BATEN AZPIAN EGON ZEN

INDAR TEKTONIKO JARRAI HORREN ONDORIOZ, ARROKAK TOLESTU ETA PUSKATU EGIN ZIREN

Iberiako penintsula iparraldera mugitzen hasi zen eta poliki-poliki Europarekin talka egin zuen. Talka horren ondorioz itsaso azpian sortutako arroak konprimatu egin ziren eta Pirinioak altxatu ziren. Horrelako prozesuak ez dira egun batetik bestera gertatzen. Geologoek kalkuluek diote talka erraldoi horren faserik indartsuenak 20 milioi urte iraun zuela (duela 40 eta 20 bitartean) eta bi kontinenteen arteko gerturatze mugimenduak lurrazalean azalean 160 km-ko murrizketa eragin zuela. Kalkulu azkar bat egiten badugu, orogenia honetan Iberia eta Europa urtean 2,5 mm inguru gerturatu zirela ondoriozta dezakegu. Gure bizitza osoan ez ginateke gai izango horrelako mugimendu txiki bat nabaritzeko, baina miloika urteetan zehar mantendurik, mugimendu hori nahikoa izan zen arroak plastilina balira bezala tolesteko eta Pirinioak eta Euskal Mendiak altxatzeko.

Mendikatearen sustraia ulertzea ez da lan erraza. Azalaren azpian dagoena irudikatzeko geologok, medikuek egiten duten bezala, teknika desberdinak erabiltzen ditugu. Horietako bat profil sismikoena da. Profil hauetan uhin sismiko artifizialak proiektatzen dira lur barnealdera eta horien erantzuna aztertuz lur azpian dauden arroren ezaugarriak eta inklinazioa ondoriozta daitezke. 1980ko hamarkadan ECORS izeneko profil sismiko bat egin zen Pirinioetan eta horren interpretazioak argi erakutsi zuen talka horretan Iberiar penintsula Europako kontinente handiaren azpian sartu zela (ikusi lirudia). Sustrai asimetrico horrek azaltzen du azalean nabaria den asimetria ere: Pirinioetako altura nagusiak ardatz bezala hartzen baditugu, mendikatea askoz ere zabalagoa da hegoalderantz iparralderantz baino (ikusi lirudia).

Arroak plastilina balira bezala

Indar tektoniko jarrai horren ondorioz, arroak tolestu eta puskatu egin ziren. Lurrazalean ikusi daitezkeen tolesak, failak



eta pitzadurak aztertuz deformazio hori nolakoa izan zen uler daiteke: noiz gertatu zen, zenbat bultzada edo pulstu egon ziren edo zein izan zen norabide nagusia, adibidez.


Gure geoparkean badira indar erraldoi haien zantzu nabariak. Sesiarte mendia, adibidez, toles erraldoi baten ondorioa da. Behe Kretazeoko kareharri gogorak tolestu eta antiklinal handi bat sortu zuten. Ez da erraza ikusten, baina Aitolako puntatik egitura tektoniko horren ikuspegi ederra gozatu ahal izango dugu.

Flyscheko geruzak ere tolestu ziren, baina, zorionez, gurean toles gutxi daude eta horregatik gure liburu erraldoiaren

Sesiarte mendiaren toles antiklinal handia Aitolako puntatik.

Aitzandiko toles etzana.






Itzurun hondartzako faila.

orrialdeak ondo ordenaturik irakur daitezke, baina badaude salbuespen ederrak ere. Guztietan harrigarriena Deban dagoen Aitzandi puntako tolesa da. Flich beltzeko hareharri gogorak plastilina bezala tolestu ziren etzanda dagoen toles ikusgarri honetan.

Egitura tektonikoak sortzeko garaian indarraren intentsitatea eta norabidea bezain garrantzitsua da arroka jokoera. Arroka hauskorregoa bada, indar tektonikoen aurrean puskatu egingo da eta tolesak sortu beharrean pitzadurak eta failak sortuko dira.



Horietako haustura bat Itzurun hondartzan ikusi daiteke marea jaisten denean. Flyscharen kapa perfektuak bata bestearekin talka egiten dute itsaso barrura sartzen den egitura polit batean.

Diagonalean daudenak kaltzitaz beterik daude, horregatik ikusten dira kolore zuriekin.

Pitzadura hauek askoz txikiagoak ere izan daitezke eta bata bestearekiko paraleloak diren taldeak osatzen dituzte. Sarritan haustura hauek kaltzita mineral zuriaz beteta egoten dira irudi geometriko politak sortuz. Beraien arteko interseksioak aztertuz jakin dezakegu zer talde sortu zen lehenago eta zein geroago.

Horrela, poliki-poliki, puzzlearen pieza guztiak lotzen saiatzen gara. Handienetik txikienera eta txikienetik argazki orokorrera. Informazio guztia arroketa idatzita dago, hizkuntza honen klabeak ezagutu eta ondo interpretatzea da gure erronka. Gure geoparkeko egitura desberdinak aztertuz eta horiek beste lekuetako egiturekin alderatuz, Pirinioak altzarazi zituen talka nolakoa izan zen ere uler dezakegu. A zer nolako erronka! ■■■

Hiru pitzadura talde Zumaiaiko flyscheko geruza batean.

Zumaia erabat euskalduna, orain dela berrehun urte



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA
@ImanolAzkue

Euskaraldian murgilduta egon gara Zumaian eta Euskararen Eguna ospatu genuen abenduaren 3an. Euskara bultzatu, indartu, biziberritu... nahi dugu, eta horretara bideratzen ditugu gure ahaleginetako asko, erdarek ito ez gaitzaten eta bizirik iraungo badugu. Duela ez hainbeste, ordea, egoera oso bestelakoa zen: euskara zen jaun eta jabe Zumaian, eta horren adibide, 1817ko dokumentu bat ekarriko dugu hona, eta Jose Antonio Aldabalde-Treku ezagutzeko parada izango dugu.

XIX. mendearen hasieran, Zumaiako Parrokiako benefiziatuetako¹ bat, Jose Antonio Aldabalde-Treku Ostolaza (Urdaneta, Aia, 1782-1854), ezin esan apaiz eredugarria izan zenik, Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan dauden agiriei begiratuz gero, behintzat. Izan ere, zenbait prozesu judizialeko protagonista nagusia izan zen eta horiek erakusten dute nolako bizimodu zalapartatsua eta bizia eraman zuen: 1808an, Artadiko errektoretza eman zioten, baina auzokoak kexu ziren, zerbitzua ez zuelako

behar bezala ematen, eta eskatzen zuten kentzeko eta Askizu auzoko erretoreari emateko ardura²; 1809an, Aldabalde-Trekuk Bizente Oliden bikarioaren kontra jo zuen, berriz ere lehengo ohitura ezartzeko (hau da, kabildoaren³ agintean txandaka aritzea apaizak), botere handiagoa eskuratu nahian⁴; 1809an Zumaiako herriak Jose Antonio Aldabalde-Trekuren kontra egin zuen, mezetan zeukan jokabidearengatik, agintariak ez zeudelako ados nola ematen zituen muin emateko estola eta eskua elizkizunetan⁵; 1816an, aurreko auzi bateko gastuak zirela eta, Aldabalde-Trekuri ondasunak enbargatzeko eskatu zuen Zumaiako Udalak⁶; 1817an, Aldabalde-Trekuk sakristau-organistaren aurka egin zuen, ustez mozkortuta ibiltzen zelako, baina gero deklarazioetan lekukoek adierazi zuten, juxtu

**SEGURU DAKIGUNA DA
1820AN GURE APAIZA,
ALDABALDE-TREKU,
BERRIZ ERE
ZUMAIAN ZELA**

kontrakoa gertatzen zen, jokoan eta edanean apaiza bera ibiltzen zen⁷; 1817an, beste lagun batzuekin batera, Aldabalde-Trekuk barku bat erosi zuen eta hura handitzeko asmotan konpontzen hasi ziren, baina lanen ardura bere gain hartuta, gero ez zien erakutsi nahi izan diru konturik bazkideei⁸... Dokumentuak aztertuta, badirudi haren jokabidea ez zela, inola ere, apaiz batengandik espero zitekeena: Espainia eta Frantziaren arteko gerra garaian (1808-1814), zibilen arropak jantzita, Gasteizera joan zen garia erostera, gero Zumaiara ekarri eta saltzeko; Baionara joan eta itsasontziekin negozioetan ibili zen; herritar ugarirekin eta agintariekin liskarrak izan zituen, mehatxuka ibili zen, eta batzuk jo ere egin zituen bastoiarekin; mezarik ez zuen ematen zegokion egun batzuetan...

Hain zuzen ere, horietako auzi batengatik, 1817an zigortu egin zuten Aldabalde-Treku eta Iruñeko seminariora joanarazi zuten denboraldi baterako. Hiru hilabete zeramatzen han, eta Zumaian, apaiz bat gutxiagorekin, gaizki moldatzen ari ziren; egoeraren larritasunak bultzatuta, Zumaiako alkateak

1817

En para tres meses que el Beneficiado y teniente cura de esta Iglesia D.^o Juan Antonio de Alabarte tiene esta confinado por disposicion de V.S. en el Seminario de la capital de esa Ciudad, y va para el mismo tiempo que esta Parroquia carece de un ministro que reparta el Pasto espiritual de este vicindario.


No pretendo, Señor, por medio de este oficio censurar la Justificada providencia de V.S. respectiva ala reclusion del referido Beneficiado, y tampoco hacer ningun panegirico de la conducta de este, sino que abandonando este punto a los Conocimientos e ilustracion de V.S., no puedo menos de hacerle presente en desempeño de mi obligacion el total abandono, en que se halla este Pueblo de voto y Cristiano por falta de Ministro que dispense los Sacramentos.

Comprendiendose el servido Lico de esta Villa de un Cura Curioso y de otro beneficiado con carga de teniente cura, resulta que en ausencia de este ha quedado para atender al alimento espiritual de toda la feligresia el primero; mas sucede que su avanzada edad de más de ~~seis~~ años, y achagues habituales no le permiten hacer quanto su celo pastoral le inspira en beneficio de sus Ovejas, y aunque pudiera tambien auxiliarle el Vicario de Monjas de esta Villa, no puede ser tan provechoso en sus buenos deseos, por no poseer el idioma bascongado, que comunmente se habla en esta Parroquia.

Por el concurso, pues, de estas circunstancias ha ocurrido la falta de Ministros en diferentes dias ~~de~~ ^{de} precepto ~~por~~ ^{por} indisposicion del Beneficiado y vicario ~~de~~ ^{de} la que se celebra en esta pequeña Iglesia del servido de Monjas, y habiendome concurrido los auxilios espirituales al menos de confesion, sien a quel

Indicacion de un cura vicario de Monjas de esta Villa que habla en esta Parroquia

Oso letra txukunarekin idatzita dago, eta erraz samar irakur daiteke 1817ko agiria.



1817ko Zumaia honen nahikoa antzekoa izango zen planoan. LUIS MARTÍNEZ KLEISERREN LA VILLA VILLAGRANA DE ZUMAYATIK HARTUA

gutuna idatzi zion Iruñeko bikario orokorrari. Karta hura, ordea, Zumaiaiko Udal Artxiboan dago, hau da, idatzi zen tokian, eta ez Iruñean, iritsi behar zuen lekuan, eta, beraz, azkenean ez zuten bidali. Hala ere, nahikoa landua dago, zirriborro hutsa baino gehiago da, eta herriko egoera eta arazoa xehetasun guztiakin azaltzen duenez, oso baliagarria zaigu. Iruñeko Elizbarrutiko

Artxiboan bila arituta, ez dugu aurkitu gutun horren edo antzekoen arrastorik edo kopiarik.

Gutunean, hasteko, alkateak adierazten dio bikario orokorrari zenbateko zailtasunei egiten ari zaien aurre: “no puedo menos de hacerle presente en desempeño de mi obligación el total abandono en que se halla

este pueblo deboto [sic.] y cristiano por falta de Ministro que dispense los sacramentos”⁹, eta zehatzago azaltzen dio gabezia:

“Componiéndose el cavildo [sic.] eclesiástico de esta villa de un Cura Párroco y de otro beneficiado con cargo de teniente cura, resulta que en ausencia de este ha quedado para atender el alimento

espiritual de toda la feligresía solo el primero; mas sucede que su avanzada edad de más de 68 años y achaquos habituales no le permiten hacer quanto su celo pastoral le inspira en beneficio de sus ovejas”¹⁰.

Herrian egon bazegoen beste apaiz bat San Jose komentuan, mojaxarrean, baina hark ez zion balio alkateari: “y aunque pudiere también auxiliarle el Vicario de Monjas de esta villa, no puede ver tampoco cumplidos sus buenos deseos, por no poseer el idioma vascongado, que comúnmente se habla en todo mi vecindario”¹¹. Beraz, mojetako apaizak balio zien komentuko mojei, haiek klausuran gaztelaniaz bizi zirelako (nahiz eta moja asko euskaldun hutsak izan sartu zirenean eta komentuan bertan ikasi gaztelaniaz), baina handik kanpo, herritarrei begira, alferrik zen apaiz erdalduna Zumaian, herritarrek euskaraz baino ez zekitelako, eta gaztelaniaz ez. Tellechea Idigorasek *Zumaya hace doscientos años* liburuan azaltzen duenez, 1802an Zumaia 1.000 biztanle pasatxo zeuzkan: 464 herrigunean, 86 Artadin, 228 Oikian eta 278 Aizarnazabalen.

Alkateak ez zuen nahi Iruñeko bikarioak arazoa konpontzea;

aitzitik, batez ere idazten zion konponbidea ere pentsatuta zeukala adierazteko eta hark baimena emateko: “(...) y desde luego he decretado proveer la Iglesia de otro ministro que haga las veces de Beneficiado y teniente cura; y al efecto he pedido al Padre Prior del Convento de Carmelitas Descalzas de Lazcano, me envíe un religioso bascongado, a que ha condescendido”¹². Alegia, alkateak apaiz euskalduna eskatu zien Lazkaoko karmelitei, eta haiek baietz erantzun. Ez dakigu, ordea, azkenean iritsi zen erlijioso euskaldun hura Lazkaotik, ezta auzia nola konpondu zen ere. Seguru dakiguna da 1820an gure apaiza, Aldabalde-Treku, berriz ere Zumaian zela; izan ere, garai hartako beste auzi batean ere protagonista izan zen: kalean zihoala, alkatearekin gurutzatu zen; alkateak agurtu egin zuen, baina apaizak ez zion bueltatu agurrik; alkateak kargu hartu zionean, apaizak eskatu omen zion bakean uzteko eta makila altxatu, mehatxari; lekuko arabera, esan omen zion: “que si le incomoda mucho le romperé la mitad de la cara”¹³.

Jose Antonio Aldabalde-Trekuren prozesuetako dokumentazio guzti-guztia gaztelania hutsean dago Iruñeko Elizbarrutiko Artxihoan, baita Aldabalde-

Trekuk aurkeztu zituen alegazio ugariak ere; baina Urdanetako (Aia) semea izanik eta batez ere Zumaiaiko alkateak dioena aintzat harturik, badakigu seguru Aldabalde-Treku ere euskalduna zela, eta are gehiago, euskaraz bizi zela zumaiairekin, euskaraz egiten zituela bere apaiz lanak (egiten zituenean), hori inon ere aipatzen ez bada ere eta inon jasota ez badago ere. Zumaian euskaraz egitea hain zen arrunta eta normala orduan, hain zen beharrezkoa, ez zen propio inon adierazten denek zekitelako hori, eta euskararen nagusitasuna ezagutu dugu bidali gabeko gutun bati esker. ■■■

¹Benefiziatu: Elizako benefizio batez edo batzuek gozatzen zuen apaiza, hau da, errenta jakin batzuk kobratzen zituena.

²Iruñeko Elizbarrutiko Artxihoa, C/ 2.850 1. zk.

³Kabildo: eliza barruko aginte organoa, apaizen junta.

⁴IEA, C/ 2.694 24. zk.

⁵IEA, C/ 2.698 4. zk.

⁶IEA, C/ 2.720 6. zk.

⁷IEA, C/ 2.704 11. zk.

⁸IEA, C/ 2.950 2. zk.

⁹Zumaiaiko Udal Artxihoa, 17.06 (1817-09-14).

¹⁰Ibidem.

¹¹Ibidem.

¹²Ibidem.

¹³ZUA, 224.06 (1820-04-25).

KULTURA

Beste bat... edo bost

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Musika mundua erabat astindu du pandemiak. Krisialdiagatik mila eta bat kontzertu eta emanaldi bertan behera geratu dira, eta ogibidea nondik atera jakin ezinik geratu dira milaka lagun; ez artistak eta musikariak bakarrik, baita soinu teknikariak, argiztapenekoak edo aretoetako arduradunak. Egoera zertxobait konpondu nahian, *Beste bat* izeneko egitasmoa sortu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Programa horretako bost emanaldi izango dira Zumaian datozen asteetan.

“Jaurlaritzak diru bat jarri du musika sektorea laguntzeko, eta programa hau da horren emaitza”, dio Joxe Mari Azkue Zumaiako Musika Bandako zuzendariak, eta Udaleko zinegotziak. Musika Bulegoaren bidez kudeatuko du Jaurlaritzak programa hau. Musika Bulegoak musikarien eta taldeen zerrenda bat argitaratu zuen, eta Zumaiara ekarriko dituzten artistak hortik aukeratu ditu Udaleko Kultura Sailak. “Gero, eskatzeko aukera izan dugu zerrendan agertu ez eta ekarri nahi izan dugun emanaldiren bat”, argitu du Azkuek.

Jazza, musika klasikoa, dantza edo pop rockeko emanaldiak izango dira Zumaian abenduaren 30etik otsailaren 18ra bitartean. “Udako Musika Jaialdiaren antzeko ziklo bat izango da, baina negura eramanda”, dio Azkuek. Emanaldi hauek ezin dira



Liher.

asteburuetan izan –hortik dator “Beste bat” izena–, eta sarrerarekin izan beharko dute.

Jaurlaritzaren arduratuko da aurrekontuaren zati batez, Musika Bulegoaren bitartez, eta geratzen dena Udalak hartuko du bere gain. “Udalaren aurrekontuan ez zegoen partidarik emanaldi hauek antolatzeko, baina Jaurlaritzaren laguntzarekin aukera hori zabaldu da”.

Koronabirusak eragindako osasun krisialdiak musika mundua bakarrik ez, udal askoren kultur egitarauak ere kolpatu dituela gogoratu du zinegotziak. Pandemia garai honetan Zumaiako Udaleko kultur egitaraua mantendu izana azpimarratu du zinegotziak. “Konfinamendua amaitu ondoren, gure lehen asmoa izan zen kultur agenda ahal zen moduan mantentzea. Hala egin ziren udako ekitaldiak, abuztuko Musika Jaialdia, etab. Baina Zumaiatik kanpo oso leku gutxitan egin dira musika emanaldiak:

Donostian ekitaldi asko bertan behera geratu ziren; Orion eta Zarautzen ere bai... Emanaldi hauei esker egitarau oparoak ari dira prestatzen udal askotan”.

Egitaraua

Abenduak 30, asteazkena
Gorria. Miren Amuriza eta La Pulga. 19:00etan, Aita Marin.

Urtarrilak 7, osteguna
Laboa Jazz. 19:00etan, Aita Marin.

Urtarrilak 22, ostirala
Liher. 19:00etan, Zumaienan.

Otsailak 4, osteguna
Gauekoak. Kukai dantza. 19:00etan, Aita Marin.

Otsailak 18, osteguna
Urolatik barrena. Urval Ensemble. Gorka Hermosa eta Jon Maia. 19:00etan, Aita Marin. ■■■

AGENDA

ABENDUA

9 ETA 10

Ikastaroa: Jabetze eskola. Indarkeria matxista hitzetan dagoenean: *nola identifikatu diskurtso patriarkalak* [Emakumeon* etxea].
Zumaianan, 17:30-20:00.

10 OSTEGUNA

Zinegoak film jaialdia: *Indianara*.
Aita Marin, 18:30etan.

11 OSTIRALA

Antzerkia: *Ene ba!!*, Txalo.
Aita Marin, 19:00etan.

12 LARUNBATA

Kontzertua: Musika Banda.
Zumaianan, 18:30etan.

13 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia: *Meri, Mari eta Lari*, Eidabe.
Aita Marin, 12:00etan.

17 OSTEGUNA

Zine forum: *The Gentlemen*.
Ostarrena zine klubaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

19 LARUNBATA

Abesbatza: San Pedro abesbatza.
Parrokian, ordua zehazteko.

21 ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: *Neguko ipuinak*, Apika (4-8urte).
Oxford aretoan, 11:00etan.

21 ETA 22

Gabonen inguruko lanketa kritikoa.
Gaztetxolan.



20 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia: *Olentzero kuttuna*, Kikilikon.
Aita Marin, 12:00etan.

23 ASTEZKENA

Ipuin kontaketa: *Kontukantoi* (4-8urte).
Oxford aretoan, 11:00etan.

24 OSTEGUNA

Gabonetako abestien lehiaketa.
Erkibe kultur elkarteak antolatuta.
Aita Marin, 18:00etan.

28 ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: *Lur Korta* (4-8urte).
Oxford aretoan, 11:00etan.

29 ASTEARTEA

Pelikula: *Capitán fantástico*.
Gabonen inguruko lanketa kritikoa (erantzun baitan).
Oxford aretoan, 18:00etan.

30 ASTEAZKENA

Ikuskizuna: *Gorria*. Miren Amuriza eta La Pulga.
Aita Marin, 19:00etan.

2021 URTARRILA

3 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia: *Botadun katua*, Glu Glu.
Aita Marin, 12:30etan eta 16:30etan.

4 ASTELEHENA

Ipuin kontaketa: Ixabel Agirresarobe.
Oxford aretoan, 11:00etan.

7 OSTEGUNA

Kontzertua: *Laboa Jazz*.
Aita Marin, 19:00etan.

14 OSTEGUNA

Zine forum: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

16 LARUNBATA

Flamenco ikuskizuna: Palmero & RuizBenitez.
Zumaianan, 19:00etan.

22 OSTIRALA

Kontzertua: *Liher* eta agian *Ezpalak*.
Zumaianan, 19:00etan.

24 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia:
Cottontarrak, Anita Maravillas.
Aita Marin, 12:00etan.

28 OSTEGUNA

Zine forum: Ostarrenaren eskutik.
Aita Marin, 19:00etan.

30 LARUNBATA

Antzerkia: *Tratanteak*, Txalo.
Aita Marin, 19:00etan.

Irudimenaren festa



NIK KANTATU ETA DANTZA EGITEN DU MENDIAK

Egilea: Irene Solà
Argitaratzailea: ALBERDANIA
Argitaratze urtea: 2020
Orrialdeak: 228
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Irene Solà (Malla, 1990) Kataluniako idazle gazteak idatzitako eleberria dugu. Katalanez iaz argitaratu zen (*Canto jo i la muntanya balla*). Gaztelaniaz eta euskaraz ere argitaratu da eta kritikaren eta irakurleen aldeko haizea jaso du nobelak, baita Europar Batasunaren Literatura Saria ere.

Pertsonaia askok osatzen dute istorioa. Solák nahi izan du lurralde zati txiki bat hautatu (Kataluniako Pirinioaurreko lur eremu txiki bat) eta hainbat ahotsen bidez istorio bat osatu, «istorio bat kontatu leku zehatz batetik igarotzen diren begirada guztiekin. Gertaera, historia, magia, mitologia... Izan ere, hainbat eta hainbat geruzak estaltzen dute toki baten bizitza eta historia». Ahozko tradizioarekin eta memoriarekin solasean aritu da etengabe eta hori da idazlearen bertuteetako bat, hain zuzen, tradizio horiek 2019tik berrirakurtzea.

Lainoek hitz egiten dute, tximistek, perretxikoez, hartzek, zakurrek, mamuek eta iratxoek, orkatzek, eta pertsonak ere bai, jakina; pertsonak hitz egiteak ez gaitu harrizko. Hitz egiten dute, baita ere, sorginek, uraren emakumeek (gure lamien antzeko pertsonaiek) betiere gizonek kontatutako istorioetan agertzen zaizkigunak. Honela diote sorginek: “Gizonek kontatutako istorio horiek gezurra dira. Gezurra dira gaiztoak garelako diotenak; gezurra onak eta ederrak garelako diotenak. Gezurrak denak. Gure istorioak kontatzen dituzte nahi duten moralitatea ezartzeko”.

Eta hitz egiten du Lurra ere, noizbait mendiez erditu zen lur horrek berak. Mendi ikaragarri horiek mendetan ezagutu dituzte bertakoen bizimodu latza eta haien amodioak; ezagutu dituzte jazarpenak, ihesak, gerrak, gorrotoak. Mugako bizitza.

Laburbilduz, Irene Sola idazleak Herri Katalaneko hainbat elezaharretan eta gertaeratan oinarrituta, gizakien eta Naturaren arteko

elkarrizketa aldarrikatzen du. Naturaren eta mendiaren ikuspegi idilikoa, hiritarrena, eta Naturaren eta Naturarekin harreman estuan bizi diren gizakien bizitza eta izaera jartzen ditu aurrez aurre. Bateko idilikotasuna eta besteko bortizkeria.

Gai ugari jaso ditu eleberria osatzen duten istorioetan: bizitzaren zikloak, maitasuna eta adiskidetasuna, gorrotoa eta ezinikusia, bakardadea, naturaren eta basoan bizi diren animalien eta pertsonaien inguruan bizi diren mamuen protagonismoa. Historian eta ahozko tradizioan gorde diren hainbat eta hainbat istorio eder. Azken finean, bizitza eta heriotza daude presente une oro nobelari.

Prosa arina eta oso poetikoa, kantuan ari bagina bezala irakurtzen dena. Irudimenari eskainitako festa dugu narrazioa, izan egia izan fantasia sentimenduak hunkitu eta hamaika galdera sorraraziko dizkiguna. Opari eder bat Gabon inguruko egunetan irakurriz gozatzeko. ■■■

Kultur eduki digitalak pandemia garaian, *the show must go on*. Eta orain zer?



MARIA ZUBIMENDI

Ziurrenik huskeriatzat hartzen genuen erdi fikziozko pandemia honek gizartea osatzen dugun norbanako askoren bizitza jarri du hankaz gora egun batetik bestera. Nork esan behar zigun etxean sartuta egon beharko genuela, eta, batez ere, normaltasun ez normal honen barruan bizitzen amaituko genuela?

Koarentena fasean sartu ginenean mundua gelditu, baina sare sozialak behin ere ez bezala zebiltzan, *jo ta fuego*, inoiz baino kontzertu, antzezlan, liburu eta abarren gomendioekin bueltaka. Eta guk, noski, entretenimendua behar itxialdiari aurre egiteko, eta desesperazioan ez erortzeko. Batzuegatik eta besteengatik, funtsean, kultur jarduera guztiak digital bihurtu ziren egunetik gauera, etxeko sofatik ikusteko moduan inolako arazorik gabe, eta hori gutxi balitz, doan.

Lehen genuen askatasuna zentzu askotan eskuetatik kendu diguten garaian, argi dago digitalizazioa soluzio bihurtu dela kasu ugarian,

gizartean oro har eta kultur arloan ere bai. Ezin uka dezakegu zuzeneko bat *streaming* bidez partekatzeko aukerak bidea ireki duela bertan behera geratuko zen emanaldi bat aurrera ateratzeko, eta, era berean, bertara fisikoki joan ezin den horri birtualki egotea erraztu diola, edo edukiera mugatuarekin aurrera egitera derrigortuta dagoen emanaldi bat pandemia baino lehen izango zuen publiko kopuru bera izatera iritsi dela.

Baina ez dugu ahaztu behar, inondik inora ere, kulturaren kontsumo digital edo, azken finean, zuzenekoaren alternatiba bilakatu den horren atzean, itxita dauden antzokiak, museoak eta zinemak, bertan behera geratu diren

EZ DEZAGUN AHAZTU KULTURA ONLINE KONTSUMITZEAK EKARRITAKO INJUSTIZIAK

kontzertuak, atzeratutako jaialdiak, kaleratu gabeko albumak, berriro irekiko ez dituzten musika aretoak, hilabete askotan ezer fakturatu ez duten profesionalak... Ia-ia aktibitatek gabe gelditu den sektore bat ezkututzen dela, oraina eta batez ere etorkizuna zein izango den arrastorik ere ez duen kultur sektorea, alegia.

Digitalizazioa baliodun tresna bihurtu da, eta hala izaten jarraituko du, baina ez dezagun ahaztu artistaren eta honekin batera lan egiten duten profesionalen lekua eszenatokian dagoela, ez dezagun ahaztu kultur edukiak *online* kontsumitzean egoera honek ekarritako injustiziak onartzen ditugula, ez dezagun ahaztu zuzenekoetara joaten ez bagara Zuzeneko Arteen sektorea eta zuzeneko kultur eskaintza desagertu egingo dela, ez dezagun ahaztu kultura desmaterializatzeak eta edukiak digitalizatzeak komunitatean elkarrekin kulturaz gozatzea galarazten digula. Kultura segurua da, kultura osasuna da, elkarrekin babestu dezagun. ■

Distopia (ipaina)



JUAN LUIS ROMATET

Aurrez erabilitako poltsa berarekin prestatu behar izan dut goizeko tea. Espabilatzeko ez bada ere, sabela berotzeko balioko ahal dit. Kikara hartu, eta ordenagailu aurrean jarri naiz, goizeko bilerarako prest. Edo hala pentsatu nahiko nuke, beste inor ez baita konektatu azkenaldian. Hiru bat aste izango dira, lau agian, T ez dela bileran sartzen. Ez dakit zer gertatuko zitzaien, baina azken aldiz pantailaren bestaldean ikusi nuenean ez zuen koraje oso ona: ez tulka, istorio oso arraroa kontatzen hasi zitzaidan. Zentzurik gabeko hitz jarioa zen eta isilarazi egin nuen. Berak, haserre, konexioa moztu zuen. Orain arte. Orduetik ez dut haren berririk izan, eta pena da, lagun taldeko azken lotura zelako.

Pandemiaren lehen olatuan etxeratu gintuztenean hasi ginen bilera telematiko hauek egiten. Zer izango zen? Orain bi urte? Hiru akaso? Ez dakit, egutegi bat badut mahai gainean, baina kolorea ere galdu du denborarekin. Memoria ere lausotzen hasia zait dagoeneko. Baina ondo gogoan dut bigarren olatuaren ondoren kalera atera ginela, Gabonak ospatzera. Pozik ginen denok, eta nola besarkatu ginen, zenbat musu eman genizkion elkarri. Mugak ere ireki zituzten berriro, eta bigarren etxebizitzetara joan ziren asko festak pasatzera; elur artean batzuk, itsasertzean besteak. Gu herrian geratu ginen. Ez genuen diru askorik, eta, zer demontre, nahikoa genuen elkar ikustearekin; ez genuen bestelakorik behar. Pozarren igaro genituen egun horiek, eta hain itsututa geunden, ez ginen jabetu gainera zetorkigunaz. Hirugarren olatua, laugarrena, zazpigarrena, tsunamia.

Aste gutxiren barruan hasi ziren lehenak erortzen. Herrira zertxobait geroago heldu zen izurritea. P izan zen hiltzen lehena, eta pixkanaka inguruko guztiak zendu ziren. Familiartekoak, lagunak, ezagunak. Beldurtuta, ikaratuta, etxean gorde ginen berriro. Baina ordurako berandu zen. Bereak eta bi egin zituen birusak gurean, triskantza galanta. Gupidarik ez zuen izan inorekin. Orduetik, justu-justu dendara joateko ateratzen naiz etxetik. Oraingo badaude kontserbak eta latak, baina noiz arte? Noiz jango nuen azken aldiz barazki freskorik, edo latakia ez den arrainik edo haragirik? Gris koloreko pasta bigun horri haragia deitzerik badago, behintzat.

Te poltsa kikatik atera eta platertxo txikian utzi dut; poltsa berririk izan ezean, oraindik ere beste pare bat aldiz erabiliko beharko dut eta. Konektatu naiz eta esperoan nago. Non zaude, T? Barkatu, barkatu, ez zintudan isilarazi behar... Norbait agertuko ote da pantailaren bestaldean? Ba ote dago inor hor kanpoan? ■■■

**KIKARA HARTU, ETA
ORDENAGAILU
AURREAN JARRI NAIZ,
GOIZEKO
BILERARAKO PREST**



ZUNTZ OPTIKOA ZUMAIA

Badator zuntz optikoaren herri sarea. Auzo guztietara zabaldutako sare berri honi esker, ohiko operadore handiez gain, tokiko kooperatiba txikiek eskaini ahal izango dute zerbitzua. Abiadura handiko konexioa izango dugu zumaia guztiok, eta hileroko kostua gutxitzeko aukera izango dugu.

guifi.net

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



ENDAÑETAk
ez du saldu
bakarririk egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



Gabonak

Zumaiako
Merkatariak

2020

HERRIKO SALTOKIETAN
EROSTEAK SARIA DU

1.000€

200€-tako 5 bono
zozketatuko dira

**GABONETAKO
8 OTAR EDER**

ABENDUAREN 10ETIK 31ERA



Zumalako Udala



ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA

Euskadi, azalena, biziarekin

